| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2015EKO URTARRILAREN 20AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 20 DE ENERO DE 2015.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Koldo Iturbe Mendilibar jn.
Joseba Arregi Martínez jn.
Ana Helguera Líbano and.
Elena Coria Yanguas and.
Álvaro González Pérez jn.
Kepa Miñambres Llona jn.
Josu Loroño Goienetxe jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a veinte de enero de dos mil quince, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con

da emaitza:

**6.- 2015EKO URTARRILAREN 13AN EGINDAKO OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2015eko urtarrilaren 13ko bilerakoa, hain zuzen.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**7.- ALGORTAKO BERTSO ESKOLAri, BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAri eta EGIZU ELKARTEAri DURU-LAGUNTZA EMATEKO ARAU ERREGULATZAILEA ONARTZEA.**

Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloko zinegotziak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1.- ALGORTAKO BERTSO ESKOLAri, BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAri eta EGIZU ELKARTEAri diru-laguntza emateko arau erregulatzailea onartzea.

2- Arau erregulatzaileak bere baitan jasotzen dituen diru-laguntza hauetarako 133.440 euroko gastua onartzea eta laguntzaren kopuru osoa honela banatzea:

-  ALBEri laguntza: 33.600 euro.
-  BIZARRA LEPOANi laguntza: 66.240 euro.
-  EGIZUri laguntza: 33.600 euro.

el resultado siguiente:

**6.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 13 DE ENERO DE 2015.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 13 de enero de 2015.

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**7.- APROBACIÓN DE LA NORMA REGULADORA DE SUBVENCIONES A FAVOR DE LAS ASOCIACIONES ALGORTAKO BERTSO ESKOLA, BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELAKARTEA Y EGIZU ELKARTEA.**

A propuesta del concejal del Área de Cultura, Educación, Euskera y Juventud, se acordó:

1.- Aprobar la norma reguladora de subvenciones a favor de las asociaciones ALGORTAKO BERTSO ESKOLA, BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA y EGIZU ELKARTEA.

2- Autorizar el gasto de 133.440 euros destinado a dichas subvenciones desglosados de la siguiente manera:

-  Subvención a ALBE: 33.600 euros.
-  Subvención a BIZARRA LEPOAN: 66.240 euros.
-  Subvención a EGIZU: 33.600 euros.

............... GUZTIRA: 133.440€

3- Proiektuak aurkezteko epea zabaltzea
- 2015eko otsailaren 28ra arte (barne): EGITASMOAK aurkezteko epea.
- ZURIKETA, FAKTURAK… aurkezteko epea diruz lagundutako jarduerak amaitu eta 45 egunen barruan.

4.- Arau erregulatzaile honen berri elkarte interesatuei emango zaie.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**8.- AZAROAREN 26ko 8750/2014 FORU AGINDUAREN BERRI EMATEA. BERAREN BIDEZ TRANSFERENTZIA BAT EMATEN DA, 2014ko OTSAILEKO ETA MARTXOKO APARTEKO DENBORALEETAN SORTUTAKO KALTEEN KONPONKETA FINANTZATZEKO.**

Lehendakaritza Arloaren arduraduna den zinegotziak proposatuta, ondokoa erabaki da:

Lehendakaritzako foru diputatuaren azaroaren 26ko 8750/2014 Foru Agindu honen jakitun geratzea. Beraren bidez Getxoko Udalari 30.331 euroko transferentzia eman zitzaion, "Ustekabekoak" kontzeptuaren kontura, 2014ko otsaileko eta martxoko denboraleen ondorioz izandako kalteen konponketa finantzatzeko (onartutako aurrekontuaren % 63a).

Honen berri ematea Udal Artekaritzari.

………… TOTAL: 133.440€

3- Abrir el plazo para la presentación de proyectos
- PLAZO de presentación de los proyectos: hasta el 28 de febrero de 2015, incluido.
- La justificación, facturas… deberá realizarse dentro de los 45 días siguientes a la finalización de la actividad subvencionada.

4- Esta norma reguladora se pondrá en conocimiento de las asociaciones interesadas.

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**8.- DACIÓN DE CUENTA DE LA ORDEN FORAL Nº 8750/2014, DE 26 DE NOVIEMBRE, POR LA QUE SE CONCEDE UNA TRANSFERENCIA PARA FINANCIAR LA REPARACIÓN DE LOS DAÑOS CAUSADOS POR LOS TEMPORALES EXTRAORDINARIOS DE FEBRERO Y MARZO DE 2014.**

A propuesta de la concejala responsable del Área de Presidencia, se acordó:

Quedar enterados de la siguiente Orden Foral 8750/2014, de 26 de noviembre del Diputado Foral de Presidencia, por la que se concede al Ayuntamiento de Getxo una transferencia de 30.331€, con cargo al concepto "Imprevistos" para financiar la reparación de los daños sufridos como consecuencia de los temporales de febrero y marzo de 2014 (63 % del presupuesto admitido).

Dar traslado del presente a la

Intervención Municipal.

**9.- ADINEKOAK ZAHAR-EGOITZAN SARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK 2015 URTERAKO EMATEKO OINARRI-ARAUAK ONESTEA.**

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1.- Getxoko pertsona nagusien alde zuzenean emandako subentzioa pertsona nagusientsako egoitzan sartzeko araupetzen duen oinarri bereziaren onestea (2015. urterako) emateko oinarri araupetzaileak onestea. Bere Testua bere arrazoiko espedientera erantsita dago.

2.- Xede horretarako gastua baimentzea 65.000 euroko zenbatekoa. Gastua udal aurrekontuaren pentzutan egingo da.

**9.- APROBACIÓN DE LAS BASES REGULADORAS DE SUBVENCIONES PARA EL INGRESO EN UN CENTRO RESIDENCIAL DE PERSONAS MAYORES, AÑO 2015.**

A propuesta de la Concejala Responsable del Área de Servicios Sociales, se acordó:

1.- Aprobar las bases reguladoras de la concesion de subvencion directa a favor de personas getxotarras para el ingreso en un centro residencial de personas mayores para el año 2015, cuyo texto se halla incorporado al expediente de su razón.

2.- Autorizar el gasto para dicha finalidad por la cuantía de 65.000 €, imputables al presupuesto municipal.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**10.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, LA OLA OSTALARITZAKO ERAIKINA TXUKUNTZEKO ETA ARTATZEKO EGINDAKO OBRARENTZAT EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- ROBERTO DE FELIPE GIL jaunari, “La Cresta de la Ola, S.L.” enpresaren izenean eta haren ordez, eskatu duen lizentzia emango

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**10.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE CONSERVACIÓN Y ORNATO DEL EDIFICIO DE HOSTELERÍA “LA OLA”.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.- Conceder a D. ROBERTO DE FELIPE GIL, en nombre y representación de la mercantil “La Cresta de la Ola, S.L.”, la licencia

zaio, Ereagako pasealekuko 14.ean dagoen "LA OLA" ostalaritzako eraikinean kontserbazio eta apainketa obrak lehen aldiz erabiltzeko. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 140. erabakiz, 2012-04-03an egindako bilkura arruntean hartua, emandako obra lizentziaren itzalpean eta gerora egindako titulartasun aldaketaren itzalpean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2012-07-10eko bilkura arruntean emandako 298. erabakiz baimendua, egin ziren.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak dagokion likidazioa egingo du, kontuan izanik obraren azken likidazioa 249.400 eurokoa dela.

solicitada para la primera utilización de las obras de conservación y ornato del edificio de hostelería "LA OLA" sito en Paseo de Ereaga 14, ejecutadas al amparo de la precedente licencia de obras otorgada por Acuerdo de Junta de Gobierno Local nº 140 adoptado en sesión ordinaria celebrada el día 03.04.12 y posterior cambio de titularidad autorizado por Acuerdo nº 298, adoptado por la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 10.07.12.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será realizada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la Liquidación Final de Obra asciende a la cantidad de 249.400 €.

**11.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, ALGORTA ETORBIDEKO 9KO ERAIKINEAN, BIRGAITU ETA ERALDATUTA, ERAIKITAKO 3 ETXEBIZITZARENTZAT EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.-

I.- MAGDALENA LEZAMA LEGUIZAMON VICINAY andreari ALGORTAKO ETORBIDEKO 9.eko eraikina birgaitzeko obrak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia emango zaio. Obra horiek eraikina 3 etxebizitza bihurtzeko egin zituen, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2006ko ekainaren 20ko 416. erabakiaren bidez baimendu zituen. Hori guztia, aurkeztu den obra amaierako dokumentazioa ikusita,

**11.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DEL EDIFICIO SITO EN ALGORTAKO ETORBIDEA, 9, PARA SU TRANSFORMACIÓN EN 3 VIVIENDAS.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.-
I.- Conceder a DÑA. MAGDALENA LEZAMA LEGUIZAMON VICINAY, licencia de primera utilización para las obras de rehabilitación del edificio situado en el nº 9 de ALGORTAKO ETORBIDEA para su transformación en 3 viviendas, obras que fueron autorizadas mediante Acuerdo 416 de 20 de junio de 2006 de la Junta de Gobierno Local. Todo ello a la vista de la documentación final de obra

Hector Garrido Ayo arkitektoak sinatua eta EHAEOak 2014-10-22an onetsia, eta udal arkitektoak 2008ko apirilaren 28an eta Azpiegitura eta Zerbitzuetako arduradunak 2015eko abenduaren 22an egindako txostenekin bat etorriz.

presentada, firmada por el Arquitecto D. Hector Garrido Ayo y visada por el COAVN con fecha 22.10.14 y de conformidad con los informes emitidos por el Arquitecto Municipal, de fecha 28 de abril de 2008 y por el Responsable de Infraestructura y Servicios, de fecha 22 de diciembre de 2015.

Lizentzia hau eman arren, obrak behar bezala egingo zirela bermatzeko jarri ziren abalak atxikiko dira. Izan ere, ez du eman obra amaierako plano digitalizatua eman. Horretarako, Azpiegitura Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko du, eta han azalduko diote nola egin.

La presente licencia se concede con retención de los avales en su día depositados para la correcta ejecución de las obras, con motivo de que no ha entregado el plano final de obra digitalizado, para lo cual deberá ponerse en contacto con el Servicio de Infraestructuras donde se facilitarán las especificaciones a cumplir para su elaboración.

II. Honen berri emango zaio Ekonomia Arloari. Aurkeztu zen obra amaierako likidazioa, eraikina birgaitzeko obrei dagokiena, 162.469 eurokoa da. Urbanizazio obra osagarriei dagokien obra amaierako likidazioa 17.678,73 eurokoa da.

II. Dar traslado de la presente al Area económica. La liquidación final de obra en su día presentada correspondiente a las obras de rehabilitación del edificio asciende a 162.469 euros. La liquidación final de obra presentada correspondiente a las obras de urbanización complementarias asciende a 17.678,73 euros.

III. MAGDALENA LEZAMA LEGUIZAMON VICINAY andreari erabaki honen berri emango zaio, horri kontra egiteko jar ditzaketen bitartekoak eskainiz.

III. Notificar el presente acuerdo a DÑA. MAGDALENA LEZAMA LEGUIZAMON VICINAY, con ofrecimiento de los medios de impugnación que proceden frente al mismo.

**12.- OBRA-BAIMENA ESKATUTA, LERTEGI KALEKO 7KO ERAIKINEAN, BIRGAITU ETA ERALDATUTA, 3 ETXEBIZITZA ETA GARAJEA ERAIKITZEKO EMATEA.**

**12.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS DE REFORMA Y REHABILITACIÓN DEL EDIFICIO SITO EN LA C/LERTEGUI, 7, PARA SU TRANSFORMACIÓN EN 3 VIVIENDAS Y GARAJES.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras,

arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

I.
LEHENENGOA: EMILIO TRASPADERNE CALVO jaunari Areetako Lertegi kaleko 7.ean dagoen eraikina berriztatzeko eta birgaitzeko obrak egiteko lizentzia emango zaio, eraikina 3 etxebizitza eta garaje bihurtzeko, aurkeztu dituen oinarrizko proiektua eta aldaketa kontuan izanik, "Guinea & Chavarri, Arqtos. Asdos, S.L.P." arkitektoek sinatuak eta EHAEOak 2014ko uztailaren 24an eta 2014-10-28an onetsiak, hurrenez hurren.

Egin nahi diren obrak orain dagoen eraikinean 3 etxebizitza sortzeko dira (une honetan familia bateko etxebizitza bakarra da). Jarduketa horren bidez, beheko solairuan karrerape bat jarriko da eta sei garaje-plaza gaituko dira sotoko solairuan, 7.4.2 artikuluarekin bat etorriz. Gainera, bizigarritasun eta isolamendu baldintzak hobetuko dira.

Baldintza hauek kontuan izan behar dira:

- Obrak hasi aurretik honako agiriak aurkeztu behar dituzte:
- Egikaritze proiektua, teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak onetsita.
- Segurtasun eta osasuneko oinarrizko azterlana.
- Kalitate-kontrolerako egitaraua.
- Telekomunikazioetako azpiegitura erkideen proiektua.
- Garaje jarduerarako proiektua.

- Lerrokadurak eta sestrak egiaztatzeko akta egitean doituko da sotoaren eraikuntzaren sestra.

Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

I.
PRIMERO: Conceder a D. EMILIO TRASPADERNE CALVO, licencia para efectuar obras de reforma y rehabilitación del edificio situado en la C/Lertegui, nº 7, de Las Arenas, para su transformación en 3 viviendas y garaje, de acuerdo con el proyecto básico y su modificación presentados, firmados por los Arquitectos Guinea & Chavarri, Arqtos. Asdos, S.L.P., visados por el C.O.A.V.N. el día 24 de Julio/2.014 y el día 28.10.14 respectivamente.

Las obras pretendidas consisten en habilitar 3 viviendas en la edificación existente que, actualmente, acoge a una vivienda unifamiliar .La actuación supone la implantación de un porche en la planta baja y habilitar seis plazas de garaje en planta de sótano, de acuerdo con el Art. 7.4.2., además de mejorar sus condiciones de habitabilidad y aislamiento.
Deberán de tener en cuenta las siguientes condiciones:

- Previamente al inicio de las obras deberán de presentar la siguiente documentación:

- Proyecto de Ejecución, debidamente firmado por Técnico competente y visado por el Colegio Oficial correspondiente.
- Estudio Básico de Seguridad y Salud.
- Programa de Control de Calidad.
- Proyecto de Infraestructuras Comunes de Telecomunicación.
- Proyecto de actividad de garaje.

- La rasante de la edificación del sótano se ajustará en el momento de la

realización del acta de comprobación de alineaciones y rasantes.

- Baldintza hauek kontuan izan behar dira batez ere:

- Se tendrán especialmente en cuenta las siguientes condiciones:

ZUINKETA: Zimentazioak ezin dira hasi harik eta udaleko arkitektoak edo beraren ordezkariak tokian bertan adierazi arte zein lerrokadura eta sestrari jarraitu behar zaien, obren zuzendaria bertan dela. Obra zuzendariak dei egiten dionetik HIRU EGUNEN buruan egin behar du lan hori.

REPLANTEO : No podrán comenzar las cimentaciones sin que el Arquitecto Municipal o su Delegado, señalen sobre el terreno, en presencia del Director Facultativo de las obras, las alineaciones y rasantes que deberán seguirse, a lo que procederá en el término de TRES DIAS, desde que fuera avisado por el Director de las obras.

OBRA LEKUA IXTEA: Obrak hasi aurretik, orubea itxi behar du, segurtasun azterlanean zehaztutakoarekin bat etorriz.

CIERRE DE LA OBRA: Antes de comenzar las obras procederá al cierre del solar de acuerdo con lo especificado en el Estudio de Seguridad.

GARABIAK INSTALATZEA:
1.- Tokiko Administrazioaren Zuzendaritza Orokorrak 1975eko uztailaren 29an emandako zirkularra betez, obretan erabiliko diren garabiek eskabidea aurkeztu behar dute instalatzeko. Agiri hauek sartu behar dira eskabidearekin:
a) Garabiaren kokatze planoa, garabi-besoaren ibilaldearekin, proiektua idatzi duen arkitektoak eta obrako zuzendariak sinatuta.
b) Aseguru poliza, garabiak funtzionatzeak eta obran egoteak eragin lezakeen edozein istripu estaltzeko.

c) Enpresa instalatzailearen ziurtapena, garabia ondo muntatuta dagoela eta ondo funtzionatzen duela ziurtatzeko.

INSTALACION DE GRUAS:
1º En cumplimiento de la circular de la Dirección General de Administración Local de 29 de Julio de 1.975, previamente a la instalación de las grúas que se vayan a emplear en el transcurso de las obras deberán presentar una solicitud para la instalación de las mismas que deberán constar de los siguientes documentos:
a) Plano de ubicación de la grúa, con las áreas de barrido de la pluma, firmado por el Arquitecto autor del proyecto y director de las obras.
b) Póliza de seguro con cobertura total de cualquier género de accidentes que pueda producir el funcionamiento de la grúa y su estancia en obra.
c) Certificación de la casa instaladora, acreditativa del perfecto estado de montaje y funcionamiento de la grúa.

2.- Garabiaren gakotik zintzilik dagoen gurdiak ezin du obrako orubearen azalera baino handiago izan.

2.- El carro del que cuelga el gancho de la grúa no deberá rebasar el área del solar de la obra. si el área de

Garabiaren besoak obretan hagatu den espazioa gainditzen badu, lizentzian agerrarazi behar da, kasuko prebentzioekin. Kontu handia izan behar da elektrizitate-lineak ukitzearekin.

funcionamiento del brazo rebasase el espacio acotado por la valla de las obras, deberá hacerse constar en la licencia, con las prevenciones del caso, habiéndose de tener especial cuidado con los posibles contactos con líneas de conducción de electricidad.

3.- Garabiak garraiatzen dituen elementuak obrako teknikariaren iritziz segurtasun bermatzen duen moduan jarri behar dira.

3.- Los elementos que transporte la grúa serán colocados en forma que presenten la necesaria garantía de seguridad a juicio del facultativo de la obra.

4.- Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Ordenantza Orokorrak (1971ko martxoaren 9ko Aginduaren bidez onetsia) garabiei buruz xedatutakoa zehatz beteko da.

4.- Se cumplirá exactamente lo dispuesto sobre grúas en la Ordenanza General de Seguridad e Higiene en el Trabajo aprobada por
Orden de 9 de Marzo de 1.971.

BESTELAKO BALDINTZAK:

a) Bereziki gogorarazten da aurkeztu diren planoak, Udalak onetsiak, zehatz betez egin behar direla obrak. Horretarako, Udal Zerbitzu Teknikoek aldian behin ikuskatze-lanak egingo dituzte hormigoian. Igeltserotza obrak ezin dira hasi egiturazko obrak ontzat ematen diren arte.

b) Edozelako aldaketa egin aurretik baimena eskatu behar da obrak egin baino lehen, eta obrak ezin dira hasi udal baimena eduki arte.

OTRAS CONDICIONES:

a) Se recuerda especialmente la obligación de ejecutar las obras ajustándose enteramente a los planos presentados y aprobados por el Ayuntamiento. A este efecto se realizarán por los Servicios Técnicos Municipales revisiones periódicas en el transcurso de las obras de hormigón,
no pudiendo comenzarse las de albañilería sin el V° B° municipal de las de estructura.

b) Todo tipo de modificación se solicitará previamente a la ejecución de las obras, no pudiéndose comenzar éstas sin el correspondiente permiso municipal.

Eskubideak ordaintzearekin batera, eta obrak hasi aurretik, 21.000,00 euro Udal Gordailuzaintzaren zainpean jarri beharko dira, edo banku-abala egin, ezarritako baldintzak zorrotz beteko direlako berme gisa.

Simultáneamente al pago de los derechos, y antes de iniciarse las obras deberá consignar en la Depositaría Municipal, o prestar aval bancario por importe de 21.000,00 €. que afectará en garantía para responder del estricto cumplimiento de las condiciones que se le imponen.

LIZENTZIA HAU BURUTZEKO EPEAK ETA IRAUNGITASUNA:

60 eguneko epean, lizentzia eman zaiolako oharra jasotzen duenetik, eta betiere obrak hasi aurretik, honakoak aurkeztu behar ditu: egikaritze proiektua (teknikari eskudun batek sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak onetsita), Segurtasun eta Osasuneko Oinarrizko Azterlana, Kontrol eta Kalitate Programa, Telekomunikazioetarako Azpiegitura Komunen Proiektua, eta Garaje Jarduerako Proiektua.

Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluan ezarritakoa kontuan izanik, hurrengo epeak ezarri dira.

- Obrei hasiera emateko epea 1 hilabetekoa izango da, obretarako lizentzia jasotzen denetik.

- Lanak beranduen 18 hilabetetan amaitu behar dira.

- Obra gehienez ere 1 hilabetez eten daiteke, sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

Epe horretan ez baditu obrak bukatzen, eta luzamendua eman ez bada, lizentzia ondorio guztietarako iraungi dela joko da.

UR, SANEAMENDU, BIDE, ARGIZTAPEN, BESTE ZERBITZU BATZUK, GARBIKETA ETA LOREZAINTZA ZERBITZUEN INGURUKO BALDINTZA BEREZIAK

OROKORRA

PLAZOS DE EJECUCION DE ESTA LICENCIA Y CADUCIDAD DE LA MISMA:
En el plazo de 60 días naturales, a partir del recibo de la comunicación del otorgamiento de esta licencia, y siempre antes del comienzo de las obras, deberá presentar el Proyecto de Ejecución, debidamente firmado por Técnico competente y visado por el Colegio Oficial correspondiente, Estudio Básico de Seguridad y Salud., Programa de Control de Calidad, Proyecto de Infraestructuras Comunes de Telecomunicación y Proyecto de actividad de garaje.

Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/ 2006, de 30 de Junio del Gobierno Vasco, sobre Suelo y Urbanismo, se establecen los siguientes plazos.
- El plazo de inicio de las obras será de 1 Mes, contado a partir de la recepción de la licencia de obras.
- Se establece un plazo máximo para la ejecución de los trabajos de 18 Meses.
- El periodo máximo que podrá estar interrumpida la ejecución de las obras por causas imputables a su promotor será de 1 Mes.

Transcurrido este plazo sin finalizarse las obras, y siempre que no se haya otorgado prórroga, se considerará caducada esta licencia a todos los efectos.

CONDICIONES ESPECIFICAS RELATIVAS A SERVICIOS DE AGUA SANEAMIENTO VIALIDAD, ALUMBRADO OTROS SERVICIOS, LIMPIEZA Y JARDINERIA

GENERAL
Previamente al inicio de las obras se

Obrak hasi aurretik, agiri bat aurkeztu behar da, egingo diren urbanizazio obrak jasotzen eta zehazten dituena, Ur, Saneamendu, Bide, Argi Publiko eta Lorezaintza zerbitzuei buruzkoa (horietatik, daudenak), kontuan izanik ondoko atal hauetan jasotakoa.

deberá presentar el documento correspondiente donde queden recogidas y definidas las obras de urbanización a ejecutar y que afecten a los servicios de Agua, Saneamiento, Vialidad, Alumbrado Publico y Jardinería en su caso, teniendo en cuenta lo recogido en los apartados siguientes.

Obra hasi aurretik, haien zuinketa onetsi behar dute udal teknikariek.

Antes de iniciar las obras, el replanteo de las mismas deberá de ser aprobado por los técnicos municipales.

Obrak egindakoan, lehenbiziko okupazioko lizentziarako eskaerarekin edota urbanizazioaren harrerarekin batera, urbanizazioaren azken egoeraren plano topografiko digitalizatua aurkeztu behar da, urbanizazioaren elementu guztiak xehatuz, baita instalatu edo aldatu diren eta udalarenak direnak (edo udalarenak izango direnak) ere: hiri altzariak, lorategiak, zoruak. Lur publikoan zehar doazen ur sareen, saneamenduaren, drainatzearen eta argiztapenaren obra amaierako planoak ere aurkeztu behar dira, jabetza publikoa nahiz pribatua izan, plano topografiko hori oinarri izango dutenak.

Una vez ejecutadas las obras, y junto con la solicitud de licencia de primera ocupación y/o recepción de la urbanización, deberá presentarse un plano topográfico digitalizado del estado final de la urbanización, en el que se detallarán todos los elementos de la misma, incluso los que han sido instalados o modificados y que sean, o vayan a pasar a ser, de titularidad municipal: mobiliario urbano, jardinería, pavimentación… así como los planos fin de obra de las redes de agua, saneamiento, drenaje y alumbrado que discurran por suelo público ya sean de titularidad privada o pública, que tendrán como base ese mismo plano topográfico.

URA ETA SANEAMENDUA
Urbanizazioko eranskinean, saneamenduko nahiz hornidurako hartuneen berriztapena islatu beharko da.
Saneamendurako, hartune bereizi berriak egingo dira, PVCzko ø315 mm-ko hodiarekin, Lertegi kaleko kolektore orokorretara. Hartunea egiten zaien kutxetak behar bezala birjarriko dira.

AGUA Y SANEAMIENTO
En el anexo de urbanización se deberá reflejar la renovación de las acometidas tanto de saneamiento como de abastecimiento.

Para el saneamiento se ejecutarán nuevas acometidas separativas con tubería de PVC ø315 mm. a los colectores generales de la calle Lertegi. Se repondrán correctamente las arquetas a las que se acomete.

Para el abastecimiento se ejecutará una

Hornidurarako, sarerako konexio berri bat egingo da, burdinurtuzko mozketa-balbularekin eta bola-balbularekin lurzoru publikoaren eta lurzoru pribatuaren mugan.

Elementu guztiak udal xehetasunen arabera egingo dira.

BIDEAK
Aurkeztu behar den urbanizazio eranskinean eta bideei dagokienean ondoko hauek izan behar dira kontuan:
Espaloian egingo den bidezoruak ondoko ezaugarriak izango ditu:
- 10 cm-ko lodierako oinarri-azpia, zabor-legarrezkoa.
- 10 cm-ko lodierako oinarria, hormigoizkoa, HM-20/P/25/I.
- Baldosa hidraulikozko zorua (Bilbao motakoa), 30x30x4 cm-takoa.
- Granitozko zintarria, 15 x 25 cm, 2 cm-ko alakaketarekin, flameatuta eta zerratuta. Zanga irekitzea, hormigoizko oinarria, junturak eta galtzadaren errematea.
Galtzada-aldean, egingo den bidezoruak ondoko ezaugarriak izango ditu:

- 20 cm-ko lodierako oinarri-azpia, zabor-legarrezkoa.
- 20 cm-ko lodierako oinarria, hormigoizkoa, HM-20/P/25/I.
- Zoladura, berotako nahaskin bituminosoarekin, AC 16 Surf 50/70 D motakoa, 5 cm-ko lodiera duen idorki ofitikoarekin. Itsaspen, betun eta baimendutako aktibanteen ureztaketa, zabaltzea, berdintzea eta trinkotzea barne.

Aurrekoa gorabehera, kontuan izan behar da zerbitzu ezberdinak egitean

nueva conexión a la red con su correspondiente válvula de corte de fundición y válvula de bola en el límite de suelo público y suelo privado.

Todos los elementos se ejecutarán según detalles municipales.

VIALIDAD
En el anexo de Urbanización a presentar y en lo que afecta a la Vialidad se deberá tener en cuenta que:

En la zona definida como acera el firme a realizar tendrá las siguientes características:

- Sub- base de 10 cms de espesor de zahorra artificial.
- Base de 10 cms de espesor de hormigón HM-20/P/25/I.
- Pavimento de baldosa hidráulica de la denominada tipo Bilbao, de 30x30x4 cms .
- Bordillo de granito de 15x25 cms con achaflanado de 2cms,.flameado y aserrado, incluso apertura de zanja, base de hormigón, juntas y remate de calzada.

En la zona de calzada el firme a realizar tendrá las siguientes características:

- Sub- base de 20 cms de espesor de zahorra artificial.
- Base de 20 cms de espesor de hormigón HM-20/P/25/I.
- Pavimento de mezcla bituminosa en caliente tipo AC 16 Surf 50/70 D con árido ofítico de 5 cms de espesor, incluso riego de adherencia, betún y activantes autorizados, extendido, nivelado y compactado.

Con independencia de lo anterior se deberá tener en cuenta que en las zonas afectadas por la ejecución de los

ukitzen diren zonetan, lehen definituetatik horretatik kanpo daudenak, egin beharreko zoladuraren azalera honelakoa izan behar dela:

-  Espaloian, egikaritze-azalerak zangak egiterakoan ukituko den eremu osoa hartu behar du, dagoen zoladurarekiko mozketak zintarriarekin perpendikular izateko moduan.
-  Galtzadan, zangaren luzera ukitutako erreiaren zabalera osoarekin edo, bestela, galtzadaren ardatzeraino zolatuko da, eta dagoen zoladurarekin egiten diren mozketak galtzadaren ardatzaren perpendikular izateko moduan. Ardatzerako ukipen perpendikularretan zolatu behar den gutxieneko zabalera hau izango da: zangarena gehi 0,50 metro alde bakoitzean.
-  Ukitutako edo egin beharreko seinale horizontalak osagai bikoitzekoak izango dira.

ARGIZTAPENA

Orain lur-zatiaren aurrean eta inguruetan dauden argiztapen publikoko instalazioak (apaindura eta bide izaerako luminariak, zenbait altueratako altzairuzko zutabeetan jarriak, eta lurpeko linea elektriko baten bidez elikatuak) behar bezala gordeko ditu, argi-puntuak, kanalizazioak eta linea elektrikoak obren eraginez ez kaltetzeko moduan, eta lur-zatien sarbideak baldintza horien arabera kokatuz.

Uneoro instalazioetako osagai guztietara (kutxetak, argi-puntuak...) iristeko aukera eman behar da egin beharreko mantentze lanak egin ahal izateko, kontuan izanik balitekeela lan horiek bitarteko mekanikoak behar izatea.

diferentes servicios y situadas fuera de las definidas con anterioridad el pavimento a ejecutar se ajustará a las siguientes indicaciones:

-  En la acera la superficie a ejecutar deberá incluir a toda la zona afectada por la ejecución de las zanjas y de forma que los cortes con el pavimento existente sean perpendiculares al bordillo.
-  En calzada se pavimentará la longitud de la zanja con la anchura total del carril afectado o en su defecto hasta eje de calzada y de modo que los cortes con el pavimento existente sean perpendiculares al eje de la calzada. El ancho mínimo a pavimentar en las afecciones perpendiculares al eje será el de la zanja más 0,50 mts a cada lado.
-  La señalización horizontal afectada o a realizar será de doble componente.

ALUMBRADO

Se conservarán en correctas condiciones las instalaciones de alumbrado público existentes en la actualidad en los frentes de la parcela y las zonas próximas (luminarias tipo ornamental y viario situadas sobre columnas de acero de diversas alturas y alimentadas a través de línea eléctrica subterránea) de modo que no sean afectados por las obras los puntos de luz, canalizaciones ni líneas eléctricas y situando los accesos a la parcela de acuerdo con estas premisas.

Deberá facilitarse en todo momento el acceso a los elementos (arquetas, puntos de luz,…) de las instalaciones para realizar las labores de mantenimiento que requieran, considerando que estos trabajos pueden precisar medios mecánicos.

Instalazio horiek funtzionatzen jarraituko dute egiten diren berriak zerbitzutan jarri arte. Gero, beharrezkoa balitz, kontratistak ezeztatu, deskonektatu eta kendu egingo ditu, akatsik eta narriadurarik gabe, udalaren biltegietara eramango ditu eta beharrezko diren errermateak egingo ditu.

Aurreikusitako jarduketen garapenak gaur egungo instalazioen segurtasuna eta funtzionamendua mantentzea galarazten badu edota beraiek aldatzea beharrezkoa bada, aurkeztutako dokumentazioan bestelako behin-behineko konponbide bat definituko da, horren eta proiektatu den azken instalazioaren ordez egiteko. Betiere instalazioen funtzionamendu eta segurtasun baldintzak bermatu behar dira, baita espazio publikoen argiztapen baldintzak ere. Enpresa sustatzailearen kontura izango da baldintza hori betetzeko behar diren jarduketak betetzea. Obrak hasi baino lehen, gaur egungo egoera zehazteko behar den dokumentazio zehatza bidaliko da. Obrek iraun bitartean instalazioek pairatzen dituzten kalteak edo narriadurak obrei egotziko zaizkie.
Azaldutako baldintzak betetzea, bidezkoa bada, pleguetan, planoetan eta aurkeztu diren gainerako dokumentuetan (eranskina, urbanizazio proiektua edo baliokidea) azalduko da.
Okerreko interpretaziorik ez egiteko, informazioa besteren bidez oker ez jakinarazteko eta instalazioen zuinketa egiteko, sustatzaileak eta tentsio txikiko instalatzaile baimendunak (instalazioa burutu behar duena) zerbitzuaren ardura duten udal teknikariekin harremanetan jarri behar dute 94.466.01.80 telefono zenbakian.

Estas instalaciones se conservarán en funcionamiento hasta la puesta en servicio de las nuevas ejecutadas, en su caso, procediéndose posteriormente por parte del contratista a su anulación, desconexión, desmontaje y traslado sin falta ni deterioro a los almacenes municipales y a la realización de los remates precisos.

En caso de que el desarrollo de las actuaciones previstas imposibilite mantener la seguridad y el funcionamiento de las instalaciones actuales y/o precise su modificación, se definirá en la documentación presentada una solución provisional alternativa a la misma y a la instalación final proyectada de modo que en todo momento queden garantizadas las condiciones de funcionamiento y de seguridad de las instalaciones y las de iluminación de los espacios públicos, siendo por cuenta de la empresa promotora la realización de las actuaciones precisas para cumplir esta condición, y remitiendo previamente al comienzo de las obras la documentación gráfica precisa para determinar el estado y situación actual. Se entiende que todo daño o deterioro sufrido por las instalaciones durante la ejecución de las obras será imputable a éstas.

El cumplimiento de las condiciones expuestas quedará reflejado, en su caso, en los Pliegos, Planos y resto de documentos (Anexo, Proyecto de Urbanización o equivalente) presentados.
Al objeto de evitar interpretaciones incorrectas y transmisiones erróneas de la información a través de terceras personas y para realizar el replanteo de las instalaciones, el promotor y el Instalador Autorizado en Baja Tensión

HONDAKINAK, GARBIKETA ETA LOREZAINTZA
Lorategi edo zuhaitz berriei buruz, edo aurreikusitako obrek ukituko dituztenei buruz, espazio publikoetan daudenak edo erabilera publikorako lagako direnak, udal teknikariekin harremanetan jarri behar dute, horretarako bete beharreko baldintza orokorren berri jakiteko.

Lurrak mugitu edota eraikuntzak eraitsi aurretik, ezinbestekoa da lizentziari dagokion aldean eta inguruetan arratoiak hiltzeko tratamendu intentsibo bat aplikatzea.

Arratoiak hiltzeko tratamendua gutxienez obrak hasi baino 15 egun lehenago egingo da. Enpresa espezializatu batek egingo du, Izurriteen aurkako Zerbitzuen eta Establezimenduen Erregistro Ofizialean izena emanda dagoena.

Arratoiak hiltzeko tratamendu intentsiboa egin ondoren, enpresa jarduleak tratamenduko ziurtagiria emango du, erabilitako produktuen berri emateko. Produktu horiek Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren Izurriteen aurkako Erregistroan izena emanda egon behar dira. Halaber, erabilitako produktu bolumena eta zein zonetan aplikatu den zehatz-mehatz adierazi behar da.

Tratamenduaren ziurtagiria Ingurumen Arloari bidaliko zaio, obrak egin

que vaya a ejecutarlas deberán ponerse en contacto con los Técnicos Municipales responsables del Servicio en el teléfono 94.466.01.80.

RESIDUOS, LIMPIEZA Y JARDINERÍA
En relación con la jardinería y arbolado de nueva ejecución o a afectar con las obras previstas, situado en espacios públicos o que vayan a ser cedidos a uso público, deberán ponerse en contacto con los Técnicos Municipales al objeto de marcar las condiciones finales que deberán presentar los mismos.

Antes de efectuar un movimiento de tierras y/o derribo de edificaciones es requisito indispensable efectuar un tratamiento intensivo de desratización en el área afecta a la correspondiente licencia y sus inmediaciones.

El tratamiento de desratización será efectuado con una antelación mínima de 15 días al inicio de las obras y será efectuado por una empresa especializada que deberá estar inscrita en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Plaguicidas.

Tras la realización del tratamiento intensivo de desratización, la empresa actuante emitirá un Certificado de Tratamiento donde se indique el/los productos utilizados que deberán estar inscritos en el Registro de Plaguicidas de la Dirección General de Salud Pública, el volumen empleado y las zonas concretas de aplicación de los mismos.

El Certificado de Tratamiento será remitido al Área de Medio Ambiente con anterioridad a la ejecución de las obras. Cualquier información que se

aurretik. Atal honi buruzko informazioa behar izanez gero, Sail horretan kontsulta daiteke, 94.466.01.91 telefono-zenbakiaren bidez.

Era berean, behin obrak amaituta, eremua sakonean garbituko da (ekortzailea, preziozko ur-mahuka...), obrak jasan dituzten gune publikoen, espaloien eta bideen lehengo garbitasun-maila berreskuratzeko. Udaleko garbiketa-sailari jakinaraziko zaio zein egunetan garbituko den, eraginkortasuna egiazta dezan, eta une horretatik aurrera, eremu publikoaren garbiketa bere gain hartuko du.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Ezin dira aireko harguneak egin telekomunikazio- eta energia-zerbitzu ezberdinetarako; gainera, bide publikoan eta finkaren fatxadaren aurrealdean egon daitezkeen aireko lineak kendu beharko dira, obrak egingo diren tokian, eta sustatzaileak burutu beharko ditu jarduera horiek guztiak. Haien zuinketa, lurzoru publikoan, eta ukitutako zoladuraren birjarpena bat etorri behar dira udal teknikariek obrak egin aurretik ezarritako irizpideekin. Zehazki, higiezin horretan telefonia-zerbitzua ematen duen aireko hartunea kendu beharko da. Urbanizazioko eranskinean azaldu behar da ukitutako zerbitzuen planoetan islatzen dela, baita energia eta telekomunikazio zerbitzuetarako eta lotura-puntuak egiteko egin beharreko hartuneak ere.

BIGARRENA: Obrak amaitutakoan,

precise en relación con este apartado podrá consultarse en este Área igualmente a través del número de teléfono 94.466.01.91.
Asimismo, una vez se hayan terminado las obras, se procederá a realizar una limpieza profunda(barredora ,mangueo agua a presión ...) al objeto de recuperar el grado de limpieza de las zonas publicas afectadas por las obras ,aceras, viales. La fecha de la citada limpieza se comunicara al departamento de limpieza municipal para observar su efectividad y a partir de ese momento encargarse de la limpieza de las zonas públicas.

OTROS SERVICIOS
No se permite la realización de acometidas aéreas para los distintos servicios de telecomunicaciones y energía debiendo además eliminar los tendidos de cables aéreos que pudiera haber en la vía pública y en el frente de fachada de la finca donde se van a realizar las obras siendo por cuenta del promotor todas las actuaciones que sean necesarias para ello. El replanteo de los mismos en suelo público así como la reposición del pavimento afectado deberá ser conforme a los criterios establecidos por los Técnicos Municipales con anterioridad a la ejecución de las obras. En particular deberá proceder a la eliminación de la acometida aérea que da servicio de telefonía a dicho inmueble debiendo aportar en el anexo de urbanización su reflejo en los planos de los servicios afectados así como las acometidas a realizar para los distintos servicios de energía y telecomunicaciones y puntos de enganche.

SEGUNDO: Al finalizar las obras, solicitará licencia de primera utilización, acompañada de liquidación

lehen erabilerako lizentzia eskatu beharko du. Eskaerarekin batera ondokoak aurkeztu beharko ditu: obren likidazioa eta azken ziurtagiria, teknikari eskudunek sinatuta eta elkargo ofizial egokiek onetsita, eraikinaren koloretako argazkiak, ikuspegi guztietatik eginak, eta buletina, edo bestela Telekomunikazioko Azpiegitura Komunen Ziurtagiria.
.

HIRUGARRENA: Erabaki honen eta beraren aurka egin daitezkeen errekurtsoen berri emango zaio eskatzaileari, ondorio egokietarako.

II. Ekonomia Arloak lizentzia horri dagozkion eskubideak igorriko ditu. Obra horietarako aurkeztutako aurrekontua 431.171,00.- eurokoa da.

y certificado final de las obras suscritos por los técnicos competentes y visados por los Colegios Profesionales correspondientes, fotografías en color de la edificación desde todos los puntos de vista, así como Boletín, o en su caso Certificado de las Infraestructuras Comunes de Telecomunicación
.

TERCERO: Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

II. Por el Área económica se girarán los derechos correspondientes a la presente licencia. El presupuesto presentado correspondiente a dichas obras asciende a la cantidad de 431.171,00-- €.

**13.- OBRA-BAIMENA ESKATUTA, IPARBIDE KALEKO 1EKO ERAIKINEAN IGOGAILUA EZARTZEKO EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.-

I.- Miren Amaia Ezkerra Perez de Nanclares andreari, IPARBIDE KALEKO 1.ko JABE ERKIDEGOAREN ordezkaritzan, obra lizentzia emango zaio, Algortako Iparbide kaleko 1.an dagoen erkidegoan igogailu bat jartzeko, aurkeztutako proiektuarekin bat etorriz, Iñaki Aristondo arkitektoak idatzia eta EHAEOak 2014-11-28an onetsia. Idazkian eskatutakoa eta 2015-01-13an emandako txosten teknikoan jaso diren baldintzak, orain azalduko

**13.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA INSTALAR UN ASCENSOR EN LA COMUNIDAD SITA EN LA C/IPARBIDE, 1.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.-
I.- Conceder a Dña. Miren Amaia Ezkerra Perez de Nanclares en representación de la CCPP IPARBIDE 1, licencia de obras para instalar un ascensor en la comunidad sita en Iparbide 1, de Algorta, de acuerdo con el proyecto presentado, redactado por el Arquitecto D. Iñaki Aristondo, visado por el C.O.A.V.N con fecha 28.11.14, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito y a las condiciones recogidas en el informe técnico emitido, de fecha

ditugunak, guztiz bete behar dira.

Egikarituko diren obra nagusiak igogailua jartzean oinarritzen dira, eskaileraren eremua 80 cm-ra murriztuz.

II. Obra egikaritzean enpresa batek baino gehiagok edo enpresak batek eta hainbat langile autonomok parte hartzen badute, lanak hasi aurretik edo hasi bezain laster, sustatzaileak segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea izendatuko du, obra burutu bitartean.

III. Obrek iraun bitartean, indarreko segurtasun neurriak bete behar dituzte, inori kalterik ez egiteko.

IV. Obrak bukatutakoan, ikuskapena eskatu beharko dute. Eskaerarekin batera ondokoak aurkeztu beharko dituzte:

a) Obren azken ziurtagiria eta likidazioa (igogailua eta plataforma igogailua barne), teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak onetsita.
b) Igogailuaren argazkiak koloretan.
c) Zarata eta bibrazioei buruzko udal-ordenantzako 7., 8., 9., 11., 12. eta 13. artikuluetan oinarrituta egindako soinu-neurketaren justifikazioa.
d) Etxeko arriskuak orokorrean eta suteak partikularrean ezagutzera emateko eta larrialdietan zer egin behar duten irakasteko prestakuntza jaso duten bizilagunen akreditazioa.
e) Agiri espezifikoa, ondokoa dioen erkidegoaren erabakia jasotzen duena: higiezinaren etxebizitzetako titularretako bakoitzari jakinarazi zaiola arriskua handitu dela pasilloaren

13.01.15 expresadas a continuación.

Las obras principales a ejecutar consisten en la instalación de un ascensor en el interior de la escalera, reduciendo el ámbito hasta 80 cm.

II. Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

III. Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, para evitar daños a terceros.

IV. Al finalizar las obras deberán solicitar la correspondiente visita de inspección, acompañada de:

a) Liquidación (incluido ascensor y plataforma salvaescaleras) y certificado final de obra suscritos por técnico competente y visados por el Colegio Oficial correspondiente.
b) Fotografías, en color del ascensor.
c) Justificación de mediciones acústicas realizadas en base a los Artºs. 7,8,9,11,12 y 13 de la Ordenanza Municipal sobre Ruidos y Vibraciones.
d) Acreditación de que los vecinos hayan recibido una acción formativa que les haga conocer los riesgos en el hogar general, y el de incendio en particular, y qué hacer en caso de emergencia.
e) Documento específico donde se recoja el acuerdo de la Comunidad en donde figure que se ha informado a todos y cada uno de los titulares de las vivienda del inmueble, del incremento

edota eskaileraren zabalera murriztean, bai eraikina husteko orduan bai larrialdi taldeek esku hartzeko orduan.

de riesgo que supone la reducción del ancho de pasillo y/o escalera, tanto para la evacuación como para la intervención de los equipos de emergencias.

V. Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen, 2006ko ekainaren 30ekoaren, 215. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta:

a) Obrak hilabeteko epean hasiko dira gehienez ere, lizentzia lortu eta gero.

b) Obra egiteko epea 6 hilabetekoa izango da, segurtasun eta osasun azterlanaren arabera.

c) Sustatzaileari egotzi ahal zaizkien kausak direla bide obra ezin da hilabete bat baino luzaroago eten.

V. Teniendo en cuenta lo establecido en el art. 215, de la Ley 2/2006, de 30 de junio del Gobierno Vasco sobre Suelo y Urbanismo:

a) Las obras se iniciarán como máximo 1 mes después de la obtención de la licencia.

b) El plazo de ejecución de la obra será de 6 meses, de acuerdo con el estudio de seguridad y salud.

c) Por causas achacables al promotor no podrá paralizarse la obra más de 1 mes.

VI. IPARBIDE 1eko JABE ERKIDEGOARI jakinarazten zaio Udaleko Zerbitzu Teknikoek ondokoa gomendatu zutela 2015-01-13an:

Erkidegoan egin gura den obraren tamaina ikusita, Atal Tekniko honek uste du ez litzatekeela zentzugabekoa izango jabe erkidegoak igogailuaren kotara iritsi arte dauden 5 eskailera-mailak kentzeko aukera baloratzea. Kontuan izan behar da, abenduaren 2ko 51/2003 Legeak, ezindutako pertsonen aukera berdintasunarenak, bazterketa ezarenak eta irisgarrritasun unibertsalarenak, azken xedapenetako bederatzigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz, zentzuzko egokitzapenak egin ahal zaizkien eraikinek DB-SUAk ezartzen dituen irisgarritasun baldintzak bete behar dituztela 2017ko abenduaren 4a baino lehen.

VI. Poner en conocimiento del a CCPP IPARBIDE 1, que los servicios Técnicos Municipales, en su informe de fecha 13.01.15 recomiendan lo siguiente:

En vista de la envergadura de la obra que se pretende realizar en la comunidad, esta Sección Técnica informa que no sería descabellado que la CCPP valorase la posibilidad de salvar los 5 peldaños existentes hasta acceder a cota de ascensor. Ha de tenerse en cuenta que antes del 4 de diciembre del 2017, de acuerdo lo establecido en la "Disposición Final Novena" de la "Ley 51/2003 de 2 de diciembre, de igualdad de oportunidades, no discriminación y accesibilidad universal de las personas con discapacidad", aquellos edificios susceptibles de ajustes razonables deben adecuarse a las condiciones de accesibilidad que establece DB-SUA.

VII. Espresuki jasota geratzen da, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari

VII. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en

buruzko 2/2006 Legearen, 2006ko ekainaren 30ekoaren, 211.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, lizentziak jabetza-eskubideaz salbu eta hirugarrengoaren kalterik gabe emango direla.

el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

BIGARRENA: Erabaki honen berri ematea interesdunei, bidezkoak diren errekurtsoen berri emanaz, eta txosten teknikoa Irisgarritasunari buruzko Euskal Kontseilura bidaltzea, haren ezagupenerako, aintzat hartuta Udaleko Zerbitzu Teknikoek Euskadiko minusbaliatuen irisgarritasunaren sustapenerako abenduaren 4ko 20/1997 Legearen eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren zenbait alderdiren betearazpenetik salbuesten dituela.

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes, y remitir el informe técnico, para su conocimiento, al Consejo Vasco sobre Accesibilidad, teniendo en cuenta que los Servicios Técnicos municipales eximen en el mismo del cumplimiento de determinados aspectos de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, de promoción de la accesibilidad de minusválidos del País Vasco, y del Decreto 68/2000, de 11 de abril.

HIRUGARRENA.- Ekonomia Arloak dagokion likidazioa egingo du, aintzat hartuta aurkeztu den aurrekontua, obra zibilari dagokiona, 47.901,30 €-koa dela (igogailua barne).

TERCERO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que el presupuesto presentado correspondiente a la obra civil asciende a la cantidad de 47.901,30 € (incluyendo el ascensor).

Eraikuntza, instalazioa edo lana amaitu eta hurrengo hilabetean, horien benetako kostuaren adierazpena aurkeztu beharko da udalean, EIOZ likidatzeko.

Una vez finalizada la construcción, instalación u obra, y dentro del mes siguiente, se presentará en el Ayuntamiento declaración del coste real y efectivo de la misma de cara a la liquidación del ICIO.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatziak eta hogei minutu direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y veinte minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.